

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO
ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA**

53/2019 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, aldatzen duena maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategiaren aldeko laguntzei buruzkoa: nekazaritza ustiategiaren inbertsioak egiteko laguntzak eta nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak.

2016ko maiatzaren 16ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategiaren aldeko laguntzei buruzkoa: nekazaritza ustiategiaren inbertsioak egiteko laguntzak eta nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak.

Foru dekretu horren bidez arautzen dira aipatutako laguntzak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean finantzatzen direnak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015/2020 Landa Garapenerako Programaren barruan. Programa hori Europako Batzordeak onartu zuen, 2015eko maiatzaren 26an hartutako Exekuzio Erabakiaren bidez.

Aipatutako foru dekretua abenduaren 12ko 23/2017 Foru Dekretuaren bidez (2017ko abenduaren 15eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) eta abenduaren 11ko 29/2018 Foru Dekretuaren bidez (2018ko abenduaren 18ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) aldatu zen. Gaur egun beharrezkoa da aldaketa batzuk sartzea foru araubidean; beraz, foru dekretu berri bat idatzi behar da maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretua aldatuko duena. Horrela, aplikazio praktikoan ilun edo zehaztugabetzat jo diren alderdi batzuk zehaztu eta definitzen dira, eta laguntzen eraginkortasun handiagoa lortzeko beste alderdi batzuk (inbertsioak bete beharreko baldintzak, balorazio irizpideak, ebazpena eta ordainketa, beste batzuen artean) ere aldatzen dira.

Horregatik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran alde aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea 9/2016 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategiaren aldeko laguntzei buruzkoa: nekazaritza ustiategiaren inbertsioak egiteko laguntzak eta nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak.

Maiatzaren 10eko 9/2016 Foru Dekretua ondoren zehazten den bezala aldatzen da:

Bat. Modu honetan aldatzen da 10. artikulua (Onuradunek bete beharreko baldintzak):

– 3. atala honela idatzita geratuko da:

«3. Kasu guztietan, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, onuradunak egunean egon beharko du.»

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA,
TURISMO Y MEDIO RURAL**

Decreto Foral 53/2019, de 3 de diciembre, por el que se modifica el Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo, sobre ayudas a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa: ayudas a inversiones en explotaciones agrarias y ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras.

Con fecha 16 de mayo de 2016 se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo, sobre ayudas a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa: ayudas a inversiones en explotaciones agrarias y ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras.

Dicho decreto foral regula las citadas ayudas, cofinanciadas por el Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER) y la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015/2020, aprobado por la Comisión Europea mediante Decisión de 26 de mayo de 2015.

El citado decreto foral fue modificado por los Decretos Forales 23/2017, de 12 de diciembre (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 15 de diciembre de 2017) y 29/2018, de 11 de diciembre (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 18 de diciembre de 2018). Actualmente resulta necesario incorporar a la regulación foral diversas modificaciones, lo que determina la necesidad de redactar un nuevo decreto foral de modificación del Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo. Así, se concretan y definen diversos aspectos del régimen de las ayudas que en su aplicación práctica se han revelado como insuficientemente precisos o claros, y se modifican otros relativos a requisitos que debe cumplir la inversión, criterios de valoración, resolución y pago, entre otros, en aras a la mayor eficacia y eficiencia en la gestión de las ayudas.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo, sobre ayudas a las explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa: ayudas a inversiones en explotaciones agrarias y ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras.

Se modifica el Decreto Foral 9/2016, de 10 de mayo, en los siguientes términos:

Uno. Se modifica el artículo 10 (Requisitos específicos de las personas beneficiarias) en los siguientes términos:

– El apartado 3 queda redactado de la siguiente manera:

«3. En todos los casos la persona beneficiaria deberá encontrarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.»

Bi. Modu honetan aldatzen da 12. artikulua (Inbertsioak bete beharreko baldintzak):

– 4. atalean, paragrafo berri bat gehitzen da azkenean, ondoko edukiarekin:

«Inbertsioak ez badu 5.000 euro gaintzen ontzat emango da aurrekontu bakarra aurkeztea.»

– 7. atalean, bigarren paragrafo bat gehitzen da, ondoko edukiarekin:

«Horiek horrela, inbertsioren bat leasing edo finantzaketa kontratu bitartez eskuratuko balitz, inbertsioa laguntzeko modukotzat joko da kontratua diru laguntza eskatu ondoren formalizatu bada.»

Hiru. Modu honetan aldatzen da 15. artikulua (Esleitzeko prozedurak eta balioespen irizpideak):

– b) atalaren hirugarren paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«— Ekoizpen Ekologiko egiaztatuko ustiategiak edo Kalitate egiaztatuko Programetako ustiategiak, LGPko 3.1 azpineurriak lagunduak badira (Getariako Txakolina eta Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenak, AGB, Eusko Label marka, Euskal Baserri marka, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpena).»

Lau. Modu honetan aldatzen da 19. artikulua (Ebazpena eta ordainketa):

– 2. atalean, hirugarren paragrafo bat gehitzen da, ondoko edukiarekin:

«Era berean, faktura baten zenbatekoa 2.500 eurokoa edo gehiagokoa baldin bada, bere ordainketa oso-osorik banketxeko agiriaren bitartez egiaztatu beharko da.»

Bost. Modu honetan aldatzen da 20. artikulua (Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak):

– e) eta f) atalak honela idatzita geratuko dira:

«e) Diru laguntzen onuradun izateko beharkizunak edo baldintzak betetzea, diru laguntzaren ebazpena eman denetik ondorengo bost urteetan, gutxienez. Denbora horretan onuraduna erretiratuz gero, epea bete artean nekazaritza jarduera nagusitatz eta Gizarte Segurantzako afiliazioa mantendu beharko ditu.»

«f) Diruz lagundutako inbertsioek aktibo jarraitu beharko dute (jabetzan edo finantza errentamenduan), eta ustiategian erabiltzeko, diru laguntzaren ebazpena eman eta zazpi urtez gutxienez, baldin eta laguntza nekazaritza makineria edo ondasun higigarriak erosteko eman bada, eta, betiere, epe hori ez da bost urte baino gutxiagokoa izango, laguntzaren azken ordainketatik aurrera kontatuta. Ondasun higiezin, instalazio finko, fruta arbolen landaketa eta hobekuntza iraunkorretarako inbertsioen kasuan, ustiategi onuradunaren zerbitzura egon beharko dute, edukitza-erregimen berean edo jabetzan, laguntzaren ebazpena eman eta hamar urtez gutxienez. Baldintza horiek betetzen ez badira, laguntza itzularaziko da.»

Sei. Modu honetan aldatzen da 31. artikulua (Balioespen irizpideak):

– a) atalaren azken paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«Kasu hauen arabera gehienez 11 puntu eman daitezke:

a.1. Instalatzen den pertsona emakumezkoa bada edo titularitate partekatua duen ustiategian instalatzen bada: 7 puntu.

a.2. 39. urte baino gehiago duten eskatzaileentzat: 2 puntu.

Dos. Se modifica el artículo 12 (Requisitos que debe cumplir la inversión) en los siguientes términos:

– En el apartado 4, se añade un nuevo párrafo final con el siguiente contenido:

«Cuando la inversión no supere los 5.000 euros se admitirá la presentación de un único presupuesto.»

– En el apartado 7, se añade un segundo párrafo con el siguiente contenido:

«En ese sentido, si alguna inversión es adquirida a través de un contrato de financiación o leasing, la inversión será subvencionable si el contrato se ha formalizado después de haberse presentado la solicitud de ayuda.»

Tres. Se modifica el artículo 15 (Procedimiento de concesión y criterios de valoración) en los siguientes términos:

– El tercer párrafo del apartado b) queda redactado de la siguiente manera:

«— Explotaciones acogidas a Producción Ecológica certificada o a Programas de Calidad certificada apoyadas desde la submedida 3.1 del PDR (Denominaciones de origen Txakoli de Getaria y Queso Idiazabal, IGP, marca Eusko Label, marca Euskal Baserri, Producción Integrada o Producción artesanal alimentaria de Euskadi).»

Cuatro. Se modifica el artículo 19 (Resolución y pago) en los siguientes términos:

– En el apartado 2, se añade un tercer párrafo con el siguiente contenido:

«Asimismo, en caso de que el importe de una factura sea igual o superior a 2.500 euros, la efectividad del pago de la misma deberá acreditarse íntegramente a través de justificantes bancarios.»

Cinco. Se modifica el artículo 20 (Obligaciones y compromisos específicos de las personas beneficiarias) en los siguientes términos:

– Los apartados e) y f) quedan redactados de la siguiente manera:

«e) Mantener los requisitos o condiciones que sirvieron para ser persona beneficiaria de la ayuda al menos en los 5 años siguientes contados a partir de la fecha de concesión de la ayuda. En caso de que durante ese periodo la persona beneficiaria pase a situación de jubilada, la condición de ATP y afiliación a la Seguridad Social deberá mantenerse al menos hasta dicho momento causante.»

«f) Las inversiones subvencionadas deberán de permanecer en activo, en propiedad o arrendamiento financiero y para el uso de la explotación durante un mínimo de 7 años desde la concesión de la ayuda si se trata de adquisición de maquinaria agrícola o bienes muebles, y en todo caso ese periodo nunca será inferior a 5 años contados a partir de pago final de la ayuda. En el caso de inversiones en bienes inmuebles, instalaciones fijas, plantaciones frutales y mejoras permanentes la permanencia en activo al servicio de la explotación beneficiaria en el mismo régimen de tenencia o en propiedad será de al menos 10 años desde la concesión de la ayuda. Su incumplimiento requerirá la restitución de la ayuda obtenida.»

Seis. Se modifica el artículo 31 (Criterios de valoración) en los siguientes términos:

– El último párrafo del apartado a) queda redactado de la siguiente manera:

«Se asignarán hasta un máximo de 11 puntos, en función de las siguientes casuísticas:

a.1. Por incorporarse en una explotación agraria en titularidad compartida o si la persona que se incorpora es mujer: 7 puntos.

a.2. Para las personas solicitantes mayores de 39 años: 2 puntos.

a.3. Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren bakarrik kotizazioaren duten pertsonentzat: 2 puntu.»

– b) atala honela idatzita geratuko da:

«b) Instalatzen den nekazariak bere ustiatzearen ekoizpen eredu jakin batzuk erabiltzea erabakitzen bada (gutxienez 0,5 NLUren baliokidean), hainbat puntu emango dira. Kontzeptu honen mugak dira: gehienez 10 puntu eta NLU 1 (5 puntutik 10 puntura eredu hauetakoren bat erabiltzen bada, eta gehienez bi metatu daitezke).

Lehenesten diren ekoizpen ereduak dira:

– Ekoizpen Ekologiko egiaztatuko ustiatzeak edo Kalitate egiaztatuko Programetako ustiatzeak, LGPko 3.1 azpineurriak lagunduak badira (Getariako Txakolina eta Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenak, AGB, Eusko Label marka, Euskal Baserri marka, Euskadiko elikagaien artisau-ekoizpena).

– Ekoizpen integratuko ustiatzeak.

– Nekazaritza eta ingurumen eta klima neurriaren konpromisoak sinatuta dituzten ustiatzeak (LGPko 10. neurria).

– Beren ekoizpenaren % 40 gutxienez zirkuitu laburren bitartez merkaturatzen duten ustialekuak.

– Beren ekoizpenaren % 50 baino gehiago Euskadiko Autonomia Erkidegoak ofizialki aitortuta dauzkan ekoizleen kooperatiba baten bitartez edo ekoizleen talde baten bidez merkaturatzen duten ustialekuak.

– Labore urreztatuen ekoizpen estentsiboa, gutxienez 10 ha (jateko eta hazitarako patata, erremolatxa, barazkiak, tabakoa eta bazka-laboreak).

Banaketatiko zirkuitu laburra (LGP 8.2.4.7. puntua) hornidura-kate bat da, lankidetzarekin, tokiko garapen ekonomikoarekin eta gertuko eremu geografiko batean ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harreman sozioekonomikoekin konprometitutako eragile ekonomiko kopuru mugatu batek osatutakoa. Ekoizlearen eta kontsumitzaileen artean bitarteko bat baino gehiago ez dituen hornikuntza-kateak bakarrik hartuko dira kontuan.»

– d) atalaren lehen paragrafoa honela idatzita geratuko da:

«d) Asoziacionismoa: Sektorean lehen aldiz hasten diren bi gaztek edo gehiagok, elkarte moduan, enpresa proiektu berri bati ekitea, gehienez 2 NLU. Enpresa planean ezaugarri hau betetzen bada, proiektuari 5 puntu emango zaizkio gehienez. (>=2 UTAs = 5 puntu).»

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2019ko abenduaren 3a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

EKONOMIA SUSTAPENENKO, TURISMOKO,
ETA LANDA INGURUNENKO DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Imanol Lasa Zeberio.

(7763)

a.3. Para las personas solicitantes que coticen únicamente en Seguridad Social agraria: 2 puntos.»

– El apartado b) queda redactado de la siguiente manera:

«b) Se otorgarán puntos por la adopción de la persona que se instala de determinados modelos productivos en su explotación en al menos el equivalente a 0,5 UTAs. El tope máximo por este concepto será de 10 puntos y 1 UTA (de 5 a 10 puntos, en el caso de que adopte alguno de esos modelos, siendo acumulables un máximo de dos).

Los modelos productivos que se priorizan son los siguientes:

– Explotaciones acogidas a Producción Ecológica certificada o a Programas de Calidad certificada apoyadas desde la submedida 3.1 del PDR (Denominaciones de origen Txakoli de Getaria y Queso Idiazabal, IGP, marca Eusko Label, marca Euskal Baserri o Producción artesanal alimentaria de Euskadi).

– Explotaciones acogidas a Producción integrada.

– Explotaciones que hayan suscrito compromisos de la medida de agroambiente y clima (medida 10 del PDR).

– Explotaciones que comercialicen al menos el 40 % de su producción a través de circuitos cortos.

– Explotaciones que comercialicen más del 50 % de su producción a través de una cooperativa de productores o una Agrupación de Productores, reconocida oficialmente por la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Explotaciones con un mínimo de 10 ha en cultivos de regadío extensivo (patata consumo y siembra, remolacha, hortalizas, tabaco y forrajeras).

Se entiende por cadena corta de distribución (apartado 8.2.4.7 del PDR) una cadena de suministro formada por un número limitado de agentes económicos, comprometidos con la cooperación, el desarrollo local y las relaciones socio-económicas entre productores y consumidores en un ámbito geográfico cercano. Únicamente se tendrán en cuenta las cadenas de suministro en las que no intervenga más de un intermediario entre el productor y el consumidor.»

– El primer párrafo del apartado d) queda redactado de la siguiente manera:

«d) Asociacionismo: la asunción de un nuevo proyecto empresarial de manera asociativa por más de una o un joven que se incorporan por primera vez al sector con un tope máximo de 2 UTAs. Cuando se dé este supuesto en el Plan de Empresa, al proyecto se le asignarán un máximo de 5 puntos. (>=2 UTAs = 5 puntos).»

Disposición final. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 3 de diciembre de 2019.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN
ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL,
Imanol Lasa Zeberio.

(7763)